

Bizitza eta lurralde kooperatiboak 2034. urtean. Aurrerapen bat *pertsona eta enpresa kooperatiboa* osatzeko asmoz

Beñat Irasuegi Ibarra

Kooperatibista Talaios eta Olatukoopen

Sarrera distopiko bat

«2034. urtea. Hamabost urte pasa dira *Joxe Azurmendi. Euskal pentsamenduaren ur-jauzia* kongresua egin zenetik. Berrogeita hamar urte, euskal pentsamendu kooperatiboa lehen aldiz sistematizatu zenetik. SESB desagertu aurretik jada Azurmendik identifikatutako utopia liberalaren garaipenak sakontzen jarraitu du. Ez omen gaude krisian, krisi sistemikoa; klimatikoa, soziala, zaintzena, ekonomikoa, normalitatea da. Jendarte liberal hiperindibidualizatuak jarraitzen du merkatuaren beharretara makurtzen. Kapitalaren metaketa prozesuetan, gero eta lurralde eta bizitza gehiago soberan ari zaizkio geratzen kapitalismoari. Baina, bitartean, bizitza eta lurraldeak burujabe diren irlak sortzen ari dira, azken bi hamarkadetan geldieztina den olatuan. Komunitateak josten, sumisioaren eta emantzipazioaren arteko talka gertatzen den mugetan».

Horrela hasiko da hemendik hamalau urtera JAKINen irakurriko duzuen artikulua, edo horrela uste dut izango dela, ariketa distopikoa eginez. Distopia modan dago, ez naiz bereziki zalea, baina gero eta gehiagok daukagu Netflixeko kontua, edo badakigu behintzat eduki plataforma horretan kontatzen dizkiguten istorioei buruz. Aisialdiaren eta denboraren desjabetze prozesuan, atentzioaren kapitalismoak distopia ez emantzipatzailez bete gaitu. Netflixizatuta gaude (Irasuegi 2020). Gaur egun daukagun defizit handienetakoa da etorkizunari buruz pentsatzen ez jakitea; orainaldian bakarrik gaude kokatuta, eta horregatik ez gara gai gaur egun eskura ditugun aukerak probesteko. Franco *Bifo* Berardik bere azken liburuetako batean lantzen duen ideari jarraituz, ez gara gai izango errealitateak eskaintzen dizkigun etorkizun aukerak baliatzeko, ez bagara gai pentsamendua eta praktika gaur egun lotzen gaituen makina ekonomiko eta teknologikotik askatzeko (Berardi 2019).

Horregatik, erronka handia da datorrenari buruz idaztea, egunerokoa interpretatzea ere zaila egiten zaigun egunotan. Ariketa bikoitza da niretzat: COVID-19ak gure bizitza eta harremanak gurutzatu aurretik, Azurmendiren pentsamenduaren inguruko kongresuan egindako hitzaldia idatzizko testura ekartzea, batetik; eta euskal kooperatibismoaren sistematizazioari etorkizuneko aukeren printzak txertatzea, bestetik. Nire ikuspegi partikularretik egingo dut ariketa, kooperatibismoaren

eguneroko praktikak, jasotako Azurmendiren pentsamenduak eta etorkizunari buruzko ikuspegi utopikoak gurutzatzen dituen ikuspegia.

Bizitzak eta lurraldea erdigunean dituen harreman sistemak osatutako komunitatearen inguruan zirkulu bat osatuko dut, etorkizun distopikotik hasi, pentsamendua, eraldaketa proiektua eta praktika proposamena zeharkatuz, beste aukera utopiko batera eramango gaituena.

Pentsamendua

Esperimentu bat egiten saiatuko naiz lerro hauetan, praktikatik egindako pentsamendu esperimentu bat, zeren ni gauzak egiten diren eremu lokaztu horretatik nator. Uste dut egiten dugun hori garelara, eta egiten dugun horretatik pentsatu beharko genukeela, gorputza jarriz, gorputza jartzen dugunean ezberdin pentsatzen dugulako. Langile kooperatibista naiz Talaios Kooperatiban. Bertatik saretzen gara eta interkooperatzen dugu Euskal Herriko beste kooperatiba, enpresa komunitario, eragile sozial eta instituzionalekin Olatukoopen bitartez. Eta orain zaintza eta bizigarritasuna praktikan jartzeko lantzen hasi gara Meta izena duen proiektu txiki eta garrantzitsu bat, mutualismoa eta beharrak elkarrekin lantzeko. Meta bat bizi dugun distopiaren erdian.

1984an *El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarieta* liburua argitaratu zuen Azurmendik, eta lan horrekin euskal pentsamendu kooperatibista sistematizatu zuen. Berez Arizmendiarietaren pentsamendua sistematizatzea helburu zuen lanarekin, harago joan eta lehen aldiz euskal kooperatibismoaren izaera bera azaldu eta antolatzea lortu zuela uste dut. Arizmendiarieta bera pentsamendu horren garapenean pertsona garrantzitsua izan zen, baina kooperatibismoa inoiz ez da indibiduala; pentsamendua ere ez, bide kooperatibo bat ez du inoiz pertsona bakar batek abiatuko, beti beharko du kolektiboa eta elkarlana horretarako. Mondragon esperientzia kooperatiboa ere ez da pertsona baten ideiak sortua, milaka langileren lan etengabearen emaitza da. Pertsonak gidari izan daitezke, baina beti beharko dute komunitate bat. Azurmendik, liburu horretan, Euskal Herrian ibilbide luzea duen komunitarismoaren hariari jarraituz, Arizmendiarietak indartu eta beste kooperatibista askok jarraitu duten bidearen oinarriak azaldu zituen, euskal kooperatibismoaren bidea, marxismoaren eta langile mugimenduaren iturrietatik ere asko jasotzen duena. Sintesian, euskal pentsamendu kooperatibistak komunitarismoa eta langileen beharrei erantzuteko autoeraturako tresna kooperatiboak batzen ditu. Azurmendiri esker, Arizmendiarieta eta Mondragonen atala ondo landuta dago, baina bide horrek izan dituen beste iturri eta ardatzak oraindik ez dira behar bezala ikertu eta azaldu.

Nekazaritzan, teknologian, ekonomian, kooperatibismoan, tokiko garapen eraldatzailean egiten dut etxetik kanpoko jardun nagusia, baina langile autodidakta ere banaiz. Filosofia irakurzalea izanik, Azurmendi da niretzat erreferentziatzeko pentsalari bat, landu dituen pentsamendu arlo ezberdinetan, eta asko aipatzen dut behar den toki guztietan.

Duela urte batzuk, Bruselan, Europako Parlamentuak antolatutako Ekonomia Sozialari buruzko jardunaldi batzuetan, Azurmendik idatzitako esaldi bat aipatu nuen

hitzartze motz batean: «Kooperatibismoa sozialismoa da» (Azurmendi 2016: 7). Azurmendik berak azpimarratzen du ea gogoratu behar ote dugun sozialista hitza bera kooperatibistek sortu zutela euren burua ezagutarazteko, eta sozialistak kooperatibista esan nahi duela; baina aipamena ez zen batzuen gustukoa izan ezkerreko alderdiek Ekonomia Soziala hobeto ezagutzeko antolatutako Bruselako jardunaldi haietan. Garatuko dut ideia pixka bat.

Kooperatibismoa etengabeko eraldaketarako tresna da, ez dezagun determinatu kooperatibismoa esperientzia konkretu batean, edo esperientzia ezagunenek izan duten ibilbidean. Kooperatibismo esperientzia asko daude munduan, eta denek oinarri bera daukate: langileen mugimendua eta antolakuntza praktikak. Kolektiborako langileen joera eta langile antolatuen beharrak asetzea izan da kooperatibismoaren oinarria sortu den toki eta garai guztietan. Oinarri hori ez duen esperientzia ezin daiteke kooperatibista bezala definitu; izango da juridikoki kooperatiba, baina kooperatibismoa gauza serioagoa da, mugimendu izateko beharrezkoa duen oinarri komunitarioa faltako zaio. Gainera, etengabeko tresna dela kontuan izatea ere garrantzitsua da, langileen beharrei erantzun eta horien baldintza material eta sozialak hobetzeko tresna; sozialismoa, beraz. Kooperatibismoa etengabeko tresna da komunitate autoeratuak eraikitzeke, eskura daukagun tresna indartsua. Gorantz datorren indibidualismo eta autoritarismo garaiotan, egoerari aurre egiteko komunitateak indartu nahi baditugu, kooperatibismoa ere indartu beharko dugu. Azurmendik dio kooperatibismoa bi gauza dela: «pentsamendu bat da, filosofia bat, espiritu bat, eta eraldaketa proiektu bat» (Azurmendi 2000: 17). Pentsatzea eta egitea proposatzen duen tresna delako, burua eta eskua erabiltzera behartzen gaituen bide eraldatzaile eta emantzipatzailea delako (Irasuegi 2018a), eman behar diogu gaur egungo jendartean duena baino zentralitate handiagoa.

«Eginez pentsatu». Arizmendiarieta, Azurmendi eta olatu kooperatibo berrietan gabiltzanon pentsamendua sortzeko ildo da hau. Praktikatik eta autoeraketatik ari den pentsamendua garatu behar dugu, horrek ere indartuko baitu kooperatibismoaren bide eraldatzailea. Helburu horrekin ikertu zuen Azurmendik Mondragon esperientziaren praktika, eta pentsamendu bihurtu. Luze emango luke zehatz azaltzeak, eta horregatik gomendatzen dut *El hombre cooperativo* edo Mondragon Unibertsitateko Lanki Ikertegiaren *Lankidetza. Arizmendiarietaren eraldaketa proiektua* liburuak irakurtzea, horietan sakon ulertuko duzuelako Azurmendik egindako euskal kooperatibismoaren sistematizazioa. Baina zein logika erakutsi digu euskal kooperatibismoaren sistematizazio lan horrek? Pertsonatik hasten da, eta esaten du lanaren bitartez eta komunitateari eskainiz egiten dela pertsona. Pertsona hori izan behar dela duina, sortzailea, askea, heldua, idealista, baina baita ere praktikoa eta bereziki komunitarioa. Elementu horiek barnebildu behar ditu pertsona kooperatiboak; baina, horretarako, hezkuntza beharrezkoa da, pertsona garatuz joateko. Lana beharrezkoa da, elkartasuna ere, eraldaketa horretarako, komunitatea sortzeko. Langilearen parte hartzea ere beharrezkoa da, eta horrela garatutako enpresa bera ere komunitatearen eraikuntzarako elementu bezala identifikatzen du. Laburbilduz, pertsonaren garapen prozesuak, enpresaren bitartez bideratutako eraldaketak, komunitatea sortzen du.

Sinplea eta nahi bezainbeste sakondu daitekeena, izugarrizko pentsamendu eta ekintza markoa da hori. Ulertu behar da, hala ere, kooperatibista gehienok aurretik dugula praktika eta marko horretan lan egitearen esperientzia, eraldaketa sistema komunitario horren ezagutza teorikoa eta jabekuntza baino. Baina hori da ohiko bidea: lehenengo kooperatibako bazkide egiten gara, eta gero komunitatean eta enpresan pertsona bezala garatzen garen bitartean egiten gara kooperatibista. Tamalez, hori ez da orokortutako bide bat, eta kultura kooperatibo indartsu bat garrantzitsua bada ere, ez da nahikoa. Pertsona kooperatiboa garatzeko, hezkuntza kooperatibo jarraitua ezinbestekoa da, praktika komunitarioarekin batera. Formazioarekin eta praktikarekin garatzen da kooperatibista.

Eraldaketa proiektua

Mundua eraldatu nahi dugu (gure mundu txikitik hasita). Jakin, badakigula zer egin behar den, baina ezin dugula, pentsatzeko joera izaten dugu. Jeneralean, ez digutela uzten, aitzakiarekin. Baina ez da izaten egia. [...] Mundua aldatuz badoa, gogoetak ere aldatuz joan behar du. Ezer ez dago betiko eginda. Eta, gutxien gutxiena, pentsamendua.

Azurmendik Lankiren libururako egindako hitzaurrearen amaiera da, gonbidapen argia Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektua abiapuntu bezala hartu eta eraldaketa proiektua bera eraldatu eta jarraipena emateko. Eta pentsamendutik ekintzarako dei bat egiteko asmoa daukagunez, Marxen aipu ezaguna ere ekarri nahi dut, XIX. mendetik, Azurmendiren norabide berean denontzat mezu argia bidali zigulako, bereziki gogoratu beharrekoa pentsalariak bildu gaituen ur-jauzi honetan. «Filosofok mundua era desberdinetara *interpretatzea* besterik ez dute egin, baina kontua da hura *aldatzea*» (Marx 1845 [2004]: 170).

Mundua aldatu da, bai XIX. mendetik eta baita 1984tik, ikusiko dugu gainera COVID-19 osteko aroak zer dakarkigun, prestatu beharko dugu. Pentsamendua ere aldatu da, ez behar beste seguruenik; horregatik, filosofoen eta praktikan gabiltzanon lana da hori guztia aldatzea, elkarlanean bada hobe. Nola aldatuko da pentsamendua, ordea, datozen urteetan? Zaila da aurreratzea, eta beste lanketa mota bat beharko luke, sakonagoa; baina, kooperatibismoaren eta ekonomia sozialaren esparrura bagatoz, eraldaketarako arrakala batzuk ikusten dira orain. 2034. urterako espero daiteke euskal pentsamendu kooperatibistan orain periferiatik zentralitatea hartu duten bi ildo nagusitzea, praktikan gabiltzan pertsona eta eragileek bizi ditugunak, eta akademian txertatzeko denbora gehiago beharko dutenak seguruenik: pentsamendu feminista eta ekonomia sozial eraldatzailea (ESE). Ildo berri gehiago etorriko dira, eta gure asmo eta praktiketan txertatu beharko ditugu.

Pentsamendu eta praktika feministak bizitzak erdigunean jartzea dakar, baina ez aldarrikapen gisa bakarrik, egiten dugun guztiaren oinarritzko aldatetarako bide bezala baizik. Pertsonaren lanketatik bizitzak lantzerantz pasatzen garenean, bi eremutan eragiten dugu: bizitza beraren ikuspegi zabalago batekin, bizitza guztiei balioa emanez, pertsona zaurgarrienak ere komunitatearen baitan kokatuz; eta bizitzaren modu orokorrean, natura eta ingurugiroa ere komunitatearen lanketarako esparruan sartuz. Bide horretan,

pertsona, lan eta bizitza guztien beharra eta interdependentzia agerian jartzen dira, eta estrategia kooperatiboen ikuspegia zabaltzen da, pertsonen eta kolektiboen garapena lan duin eta emantzipatzailearen esparrutik bizitza bizigarriak eraikitzeko proiektu saretuera eramanez. Zaintza ere kontuan hartu beharreko elementu zentral bezala kokatzen du. Feminismoa eta bizigarritasuna izango dira gaur egungo erpin askotako krisiari aurre egiteko oinarriak, denontzat bizitza proiektuak eraikitzeko beharrezkoa izango delako zaintzen, klimaren, ekonomiaren, osasunaren eta bizitzaren beraren krisiak sortzen dituen kapitalismo patriarkala eraistea.

Ekonomia sozial eraldatzailearen ildoak ere gero eta presentzia handiagokoa da, eta espero dezakegu datozen urteetan asko garatzea, gaur egun Olatukoop interkooperazio sareak egiten duen moduan. Euskal Herrian izen horrekin izendatzen dugu ekonomia herritarrentzat berreskuratu nahi duen praktika, tresna, estrategia eta ideien multzoa, eta munduko beste tokietan ekonomia solidarioa, popularra edo komunitarioa bezala ere aurkituko dugu. Edonon ere, ekonomia elkartasunarekin, herritarren beharrekin eta lurraldearekin lotzen duen ildoak da. Orain arteko pentsamendu kooperatibistan, enpresa zen pertsonaren eta komunitatearen garapenerako elementu zentrala. Industrializazio garaiko fabrikaren ideiarik oso lotutako pentsamendua, non harremanak eta kontradikzioak enpresaren barruan sortu eta eraldatzen ziren. Gaur egungo mundu globalizatuan, berriz, enpresaren izaera materiala bera ulertzea zaila egiten da, multinazional, *start-up* eta plataforma kapitalismoaren eredu bihurtu baita enpresa eredu berria. Egoera horretan, lurralde eskala da harremanen eta tentsio sozial eta ekonomikoen eremua. Ekonomia sozial eraldatzailetik, elkartasuna dimentsio ezberdinetan lantzetik, lurralde eskala horren logiketan erantzuten zaio ekonomia komunitatearentzat sortzeko erronkari.

Harreman ekonomiko eta sozialek bizitza, komunitate eta lurraldeak gurutzatzen dituztela jakitun, eta herritarren beharren ikuspegitik, bizitza bizigarriak modu kolektiboan eraikitzeko elkartasuna hainbat dimentsiotan eraiki beharko dugu: zaintzaren dimentsioan, bizitza guztiak kontuan izango dituen; eragile publiko-komunitario-kooperatiboen dimentsioan, interkooperazio tresna eta sareekin eta jendartearekiko konpromiso eta berdinen arteko egituratzearekin.

Baina eraldaketa proiektu berri horrek, pentsamenduaren ildo berriekin bat egingo duenak, subjektu eraldatzaile berri bat ere behar du, kooperatiba eta kooperatibista eraldatzailez osatutako kooperatibismo berri bat. Azken urteetan praktikaren bitartez izaera kooperatibo berri bat landu behar izan dugu Olatukoopeko gure kooperatibetan, baina baita KoopFabrika interkooperazio proiektuaren bitartez kooperatiba berriak sortzerakoan ere (KoopFabrika, <http://koopfabrika.eus>).

Eta zein helburutan oinarritu beharko da sortuz joango garen kooperatibismo berri hori? Hauek dira KoopFabrikan garatutako adierazle sistema baterako proposamenean kolektiboki garatu ditugunak, bertan jasotzen diren definizioekin (Egiletza kolektiboa 2019):

- *Lanaren burujabetza*. Pertsona orok auzolanean eta balio eraldatzaileetan oinarritutako lan duin bat izateko duen eskubidea bermatu, ekoizpen baliabideen jabetza kolektiboko formulen bitartez eta ekoizpen harreman ez

kapitalistetan oinarrituz. Ekoizpen harreman horiek erabakitze prozesu demokratikoetan eta banaketa sistema justuetan oinarritu, eta bateragarri egin ingurunearen eta bizitzaren gaur egungo eta etorkizuneko iraunkortasunarekin.

- *Ekimen kolektiboa.* Kolektiboaren zentzu hori erabakitze egitura demokratikoen bitartez eta kideen arteko elkartasun mekanismoen bitartez gauzatzen da. Pertsonak, lana eta gizarte helburuak kapitalaren aurretik lehenesten dira, kudeaketa garden, demokratiko eta parte hartzailea burutuz, eta etekin ekonomiko eta ez ekonomikoen banaketa justua ezarritu.
- *Lurraldea eta eraldaketa soziala.* Lurraldearen tokian tokiko garapen iraunkorra eta komunitarioa bultzatu gure ingurumenarekiko, eta inguru sozial, ekonomiko eta politikoarekin konpromisoa gauzatu, gizartearekiko beharrezkoa diren eraldaketak lortzeko bidean, ekonomia sozial eraldatzailearen paradigmaren baitan.
- *Oreka ekologikoa.* Ekonomia ekologikoaren oinarriak barneratu, ekintza ekonomikoa giza sisteman eta biosferan txertatuz. Proiektuak erronka ekosozialarekin bat egiten du, eta jarduera ekonomikoa energia, material eta hondakin gutxiagorekin egiten saiatzen da, jardueratik sortutako produktuen ezaugarriak irizpide ekologikoekin zainduz bere bizitza ziklo osoan. Era horretan, trantsizio ekosozialerako berebizikoa den metabolismo sozioekonomikoaren aldaketan eragiten du.
- *Bizitza erdigunean.* Erakundea modu demokratiko eta inklusiboan definitu eta antolatu: erakundea bera, egitekoak eta lan guztien denborak. Bizitzaren sostengurako berebizikoak diren zeregin produktiboak zein erreproduktiboak (norbanakoa, taldea eta komunitatea) aitortu, balioan jarriz eta bermatuz. Horrekin, boterearen eta lidergoaren espresioaren eraldaketan eragin eta erabaki nahi da, eredu ez patriarkalak garatuz, adieraziz eta azaleratuz.
- *Iraunkortasun ekonomikoa.* Bideragarritasun ekonomikoa bilatu. Batetik, aktibitatearen eta aktibitatean ko-eraketa politika bat ezarritu, hau da, jardueran eragina duten eragile guztiak (langile, hornitzaile, bezero/erabiltzaile, finantza entitateak...) barneratzen dituen erabakiguneak sortuz. Eta bestetik, autonomia eta finantza bideragarritasuna bermatzen duen pluraltasun ekonomikoa landuz, hau da, jatorri ezberdineko (merkatu ekonomiakoak –ez kapitalistak lehenetsiz–, ez merkatukoak –publikoak gehienetan– eta ez monetarioak –elkarrekikotasuna–) baliabideak eta gaitasunak mobilizatzeko eta eskuratzeko gaitasuna garatuz. Betiere, proiektuaren beste dimentsioekin oreka bilatuz.

Hau da gure eraldaketa proiektu berritua, iturri zahar eta berrietatik jasotzen duena, garatu, sakondu eta eguneroko praktiketara eramane beharko duguna. Baina orain marko bat daukagu, eta, zabaldu gabea badago ere, zorionez praktiken ekosistema aberatsa daukagu martxan.

Zer egin?

Eta zer egingo dugu 2034. urterako aurreikusi dugun distopiari aurre egiteko? Bada, gaur egun Euskal Herrian indartsua den kooperatibismoari indar eta pentsamendu berria eman. Horretarako, interkooperazio agenda zabaldu beharko dugu, euskal mugimendu kooperatiboan dauden eredu ezberdinak elkarlanean jarri eta, luzera begiratzeaz gain, gaur egun gertatzen ari den ekonomia sozialaren eraldaketa prozesua ezagutu eta aitortu beharko dugu.

Izan ere, 2008-2020 krisi zikloa gertatu den denboran, gure ustez eta orain arteko historia kooperatiboari begiratuta, olatu kooperatibo berri batek indarra hartu du Euskal Herrian. Oraindik gutxi idatzi da horri buruz (Oleaga 2019), ekintzailtza kooperatiboan gabiltzanok gero eta gehiago aipatzen badugu ere. Nik «bosgarren olatu kooperatibo» deitu izan dut; berdin du, garrantzitsua dena da errealitatea dela eta bertan eragile eta kooperatibista askok parte hartzen dugula. Gainera, ez da Euskal Herrian bakarrik zentratutako olatua, mundu osoan antzeko ezaugarriekin zabaltzen ari dena baizik. Oinarrian beharrei autoeraketaren bitartez erantzuteko inpultsoa izateaz gain, bi ildo nagusik ezaugarritzen dute olatu hau, aurrekoetatik diferentziatuz.

Alde batetik, jendarte antolatuaren behar konkretuei erantzuteko kooperatiba berrien sorrera edo indartzea gertatu da, garai batean Ikastola, euskal komunikabide edo euskaraz alfabetatzeko eskolek irekitako ildoari jarraituz; energia, finantzak, elikadura, telekomunikazioak, modu kolektibo eta kooperatiboan eskuratzeko mota ezberdinetako kooperatibak sortu dira. Askotan oinarritzko beharretarako izanik, bazkide asko lortu dituztenak, modu demokratikoan kudeatzen direnak eta, izaeraz gain, beharren erantzuna ere modu eraldatzailean proposatzen dutenak, finantza etiko, teknologia libre, energia berriztagarri edo agroekologiaren bitartez. Aurrerantzean ere plataforma kooperatibismoaren bitartez ikusiko ditugu garatzen horrelako proiektuak.

Bestetik, euskal eredu kooperatiboan garrantzitsua eta bereizgarria den lan elkartuko kooperatiba berrien sorrera dugu. Azken krisi zikloan inoiz baino kooperatiba gehiago ari dira sortzen Euskal Herrian, eta gehienek dute ezaugarri langileak kooperatibako bazkide izatea. Aurreko ziklo sortzaileekin alderatuz, oraingoan kooperatiba txikiak dira gehienak, zerbitzuen arlokoak, baina guztiz askotarikoak jarduera eta lurralde banaketan, sartzeko joera dutenak gainera. Aurreko esperientzietako kooperatiba industrialekiko oso ezberdinak: txikiagoak, baina seguruenik politizatuagoak eta bizigarriagoak. Izaera ezberdintasun hori ez da kasualitatea, eta oso lotua dago garai bakoitzeko baldintzekin, eta gaur egun konkretuki ekonomiaren tertziarizazioarekin. Bide horretan, eta euskal eredu kooperatibistaren izaerari oso lotuta, aurretik aipatu dugun lanaren burujabetzak garrantzi handia du olatu berri horretan, lan burujabea soldatapeko lanari kontrajarriz, pertsonaren garapenerako baino pertsonaren eta komunitatearen emantzipaziorako elementu bezala kokatuz. Eztabaida konplikatu da hori oraindik, baina eman beharrekoa langile mugimenduaren baitan. Soldatapeko harremanen sumisiotik irten nahi duen gero eta pertsona gehiagorentzako tresna da kooperatibismoa, eta horrela uler dezakegu hobeto olatu kooperatibo berri horren sorrera.

Abian diren bi joera horiek saretu eta indartzeaz gain, beste ildo estrategiko batzuk indartu beharko ditugu, olatu kooperatiboaren eboluzioak proiektu eraldatzailea finka dezan, jendarte eta ekonomia eraldatzaile baterako subjektu aktiboa izan dadin:

- *Lurraldetu.* Sor ditzagun kooperatiba berriak, elkarteak, auzoko zaintza sareak, lurraldeetan identifikatutako beharrei erantzuteko. Gorpuztu ditzagun, errealitate izan daitezen, eta gure lurraldeetako ekosistema kooperatiboak indartu ditzaten. Egiten ikasiko dugu, ehun kooperatiboa zabaltzen.
- *Formatu.* Arizmendiarrieta berak oso argi zuen, eta olatu kooperatibo berriko eragileek ere argi izan behar dugu, formaziorik gabe ez dago eraldaketarik. Orokortutako joera da pentsatzea jakintza guztia beste norbaitek eman behar digula, eta eredu horretan jakintza hegemonikoaren baitan harrapatuta geratzen gara. Jakintza librea eta formazio egitura autoeratuak sortu eta indartu beharko ditugu.
- *Burujabetu.* Emantzipatu gaitzen kolektiboki, lanean, energian, sorkuntzan, artean, teknologian, elikaduran. Horretarako, proiektu kooperatiboaren saretzearen bitartez lurralde zabalpena eta eskala jauziak gauzatu.
- *Instituzionalitate berri bat sortu.* Auzoko elkartasun sareen trinkotzetik hasita, udalgintza eraldatzaile saretu batean oinarrituko den administrazio eta estatu kooperatibo eredu bat pentsatu beharko dugu, eraikitzen hasteko. Lurraldeen garapen ekonomiko eraldatzaileko egitura publiko-komunitario-kooperatiboak ere sortu beharko ditugu.
- *Bizi.* Bizitza proiektu bizigarriak eraiki ditzagun, proiektu eraldatzaileen bitartez, babes eta zaintza sare mutualistak sortuz, bizigarritasuna kontzeptu eta praktika bezala landuz.
- *Denontzat egin.* Eta izan dadila eraiki nahi dugun mundu berri hori, tresna eta praktika sare hori, denontzat. Ez dezagun sortu euskal mugimendu kooperatibistaren inguruan komunitate oparo baino itxi bat, non jendartearen zati handi bat bizitza bizigarri baten aukeratik kanpo egongo den.

Elkartasun erradikal bat proposatu beharko genuke, eremu guztietan, eta lantzen ditugun proiektu eta estrategia guztietan, oparotasun berdinzalea zabalduko duena gure lurralde eta bizitzetan.

Utopia apal bat

Mito pixka bat –libertatez–, utopia apal bat, eta mundua gure aurrean zabalik! (Azurmendi 2011: 147)

Ezagutzen ez nuen eta kongresuko esku orrian aurkitu dudana Azurmendiren aipu horrekin amaitu nahi dut. Askok gustatu zait, mito eta utopia zalea bainaiz (Irasuegi 2018b). Mitoak behar ditugu etorkizun posibleak irudikatu eta lantzeko, libertatez, ez dezagun onartu aukerak murriztea. Utopia apal bat, denok ondo bizitzeko, apaltasunetik

eraiki beharko duguna. Eta mundura zabalik, beste esperientzietatik behar duguna jaso eta jendarteari ahal duguna emateko.

Baditugu tresnak, badugu pentsamendu ildo bat, badugu utopia apal bat hasieran erakutsi dugun eta gaur egun bizi dugun distopia sozial eta ekonomikoari aurre egiteko. Proposamen hau dakart nik, baina guztiona da bidea, eta zuek ere zuen bizitzetatik, eguneroko praktikatik, zuen lurraldeetan bidea egin dezakezue, garrantzitsua da. Datorren mundu autoritario, indibidualista eta desberdintasun ekonomiko sortzaileari aurre egiteko, sor dezagun komunitate ireki bat, berdinzalea, kooperatiboa, bizitzak eta lurraldea erdigunean izango dituen, osasuna eta oparotasuna denontzat izateko.

Bibliografia

- Azurmendi, Joxe (1984): *El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarieta*, Donostia, Lan Kide Aurrezkia.
- (2000): ‘Hitzaurrea’, in Nerea Agirre eta beste: *Lankidetzak. Arizmendiarietaren eraldaketa proiektua*, Eskoriatza, Lanki Ikertegia eta Mondragon Unibertsitatea, 13-17.
- (2011): ‘Historia ez da ikusten, asmatu egiten da’, in Kepa Korta eta Jesus Mari Larrazabal (argk.): *Gogoz, hitzez eta egitez. Pello Huiziri eskainitako lanak*. Bilbo, EHUko Argitalpen Zerbitzua, 121-148.
- (2016): *Gizabere kooperatiboaz*, Donostia, Jakin. *Jakin Irakurgaiak* bilduma 47.
- Berardi, Franco Bifo (2019): *Futurabilidad*, Buenos Aires, Caja Negra.
- Irasuegi, Beñat (2018a): ‘Marx, burua eta eskua’, *Etzi.pm*, 2018-04-04 (<https://etzi.pm/2018/04/marx-burua-eta-eskua>).
- (2018b): ‘Zientzia fikzioaren alde. Utopia berriak lantzeko ordua’, *Erria*, 2018-01-21 (<https://erria.eus/sinadurak/zientzia-fikzioaren-alde-utopia-berriak-lantzeko-ordua>).
- (2020): ‘Geopolitikan trebatzeko telesailak’, *Erria*, 2020-03-27 (<https://erria.eus/sinadurak/geopolitikan-trebatzeko-telesailak>).
- KoopFabrika (2019): *Ekintzailtza sozial kooperatiborako adierazle-sistema baten proposamena. KoopFabrika 2018/2019 ekintzailtza sozialerako programa*. Informazio gehiago: KoopFabrika.
- Marx, Karl (1845 [2004]): ‘Feuerbach buruzko tesiak’, in *Idazlan hautatuak*, Bilbo, Klasikoak. Itzultzailea: Xabier Mendiguren Bereziartu.
- Oleaga, Amaia (2019): ‘Sakonago eta zabalago. Olatu kooperatibo berria’, *Erria*, 2019-11-18 (<https://erria.eus/erreportajeak/sakonago-eta-zabalago-olatu-kooperatibo-berria>).

JAKIN

Martin Ugalde Kultur Parkea
 Gudarien etorbidea, 29
 20140 ANDOAIN
 943 21 80 92
 jakin@jakin.eus
 www.jakin.eus